



EBAZPENA (09/2008 espedientea- ADEBI)

Osoko bilkura

Javier Berasategi Torices jauna, presidentea

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, presidente-ordea

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, kide eta ponentea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Gasteizen, 2009ko maiatzaren 20an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren osoko bilkurak, goian aipatutakoek osatuta, eta Juan Luis Crucelegui Garate txostengile dela, 09/2008 espedienteari buruzko ebazpena eman du, *Lehiaren Defentsarako 15/2007 uztailaren 3ko Legeak* debekatzen dituen jarrerak egiteagatik Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Bizkaiko Hortzetako Elkartearen (ADEBI) kontra abiarazitako ikerketa erreserbatuari buruz.

GERTAKIZUNAREN AURREKARIAK

- (1) 2008ko urtarrilaren 16an, Ekonomia eta Planifikazioko Zuzendariak ebazpena eman zuen, zeinak erabakitzen baitzuen informazio erreserbatuari hasiera ematea, kasuan kasu, dagokion zehapen-espedientea jarri ondoren Bizkaiko Hortzetako Elkartearen (ADEBI) kontra, IMQ aseguru-etxearen hortz-poliza dela-eta Bizkaiko sektore odontologikoko enpresa-kolektiboa defendatzeko egindakoengatik.
- (2) 2008ko urtarrilaren 29an, eta Estatuko nahiz autonomia-erkidegoetako eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.1. artikulua xedatutakoa bete beharrez, Ekonomia eta Planifikazioko zuzendariak ohar laburtxo bat bidali zion Batzorde Nazionalari, adierazteko Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak bere burua eskudun ikusten zuela kasuaren nondik norakoen berri jakiteko, eta Lehiaren Batzorde Nazionala ados agertu zen.



- (3) IMQ-k 2005eko urtarriletik aurrera komertzializatzekoa zuen Hortz Plana zela-eta, ADEBI elkartearen jarrera izan zen erreklamazio-idazki bat bidaltzea Bizkaiko Odontologoen eta Estomatologoen elkargo ofizialari, eskatzeko bidal ziezazkiela idazki batzuk egoeraren berri emateko Lehiaren Defentsarako Auzitegiari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, Osasun Ministerioari, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari eta Odontologo eta Estomatologoen Kontseilu Orokorrari.
- (4) Argibide horiek kontuan hartuta, 2004ko abenduaren 15ean, Elkargoak bidalitako dokumentu bat jaso zuten Lehiaren Defentsarako Zuzendaritza iraungian (Lehiaren Defentsarako Auzitegi iraungitik zetorrena). Dokumentua bi idazkik osatzen zuten, lehenengoa ADEBI elkarteak berak Elkargoan aurkeztutako erreklamazio-idazkia.
- (5) Lehiaren Defentsarako Zuzendari Nagusiak erabaki zuen artxibatuta uztea Elkargoak eta ADEBI elkarteak jarritako salaketa, etsita jarrera horrek ez zuela Lehiaren Defentsarako Legea hausten.
- (6) Hala eta guztiz ere, honen ildoan, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak jakin zuen “*Odontologiako osasun-zerbitzu profesionalak eskura izateko kontratua*” egin zutela IMQ eta bere mediku-taldeko odontologiako espezialistek, eta iruditu zitzaion kontratu horretako 3.5.b) klausulak agian Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua urratzen zuela, xedatzen duelako IMQ-rekin kontratua duen odontologoak bere bezero pribatuei kobratzen dizkien tarifa berdinak edo baxuagoak aplikatu behar dizkiela aseguratu.
- (7) 2006ko maiatzaren 11n, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (Lehiaren Defentsarako Legearen 36. artikulua 1. eta 4. atalak kontuan hartuta) erabaki zuen lehia murrizten jarduteagatik IMQ-ren kontrako zehapen-espedientea (3/2006 Z) abiaraztea, eta horren berri ematea enpresa espedientuari.
- (8) Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak espedientea izapidetu ondoren, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak, 2008ko otsailaren 20ko ebazpen bidez, zehatu egin zuen IMQ, eta 300.007 euroko isuna jarri, Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua urratzeagatik (1/2007 espedientea).
- (9) ADEBI elkartearen jokabidea dela-eta, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak 2008ko otsailaren 20an emandako ebazpenak (1/2007 espedientea, IMQ), espedientea merezi izan duen jarreraren albo-efektuen baitan, agerian utzi zituen beste jarrera batzuk, Legearekin bateragarri ziren edo ez zalantza piztu zutenak. Zehazki, Bizkaiko Hortz Elkarteari (ADEBI) dagokionez, “*Bizkaiko Odontologo eta Estomatologoen Elkargo Ofizialerako erreklamazio-idazkia*” aipatzen da, ADEBI elkarteak COEV-era bildali zuena, eskatzeko esku har zezala IMQ aseguru-



konpainiaren aurrean, enpresa horrek merkaturatu nahi zuen hortz-poliza zela eta. Halaber, erantzuna emateko COEV-ek ADEBI elkarteari bidalitako idazkian (artxibatzeak akordioan aipatzen den horretan), adierazten da ADEBI elkartearen idazkiak "43 asoziatuaren sinadura dakarrela, eta horietatik 24k jada sinatuta daukatela IMQ-n jarraitzea baldintza berdinetan, eta sinatzaile horietatik 4k IMQ-ren Hortz Plana sinatu dutela (IMQ-ri buruzko ebazpenaren 59. orria).

- (10) 2008ko azaroaren 21ean, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak espedientea ez izapidetzeko proposamena bidali zion auzitegiari, eta proposatu zion artxiba zitzala ADEBI elkartearen jokabideagatik abian jarritako ekintzak.
- (11) Bizkaiko Hortz Elkarte (ADEBI) tarteko da.
- (12) 2009ko maiatzaren 20an egindako bilkuran, Auzitegiak gaia aztertu eta epaia eman zuen.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

- (13) **Lehena.-** Lehiaren Defentsarako Legearen 49. artikuluko 3. puntuak xedatzen du Lehiaren Batzorde Nazionaleko Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, Kontseiluak eskumena daukala erabakitzeko Legearen 1, 2 eta 3. artikuluetan debekatzen diren jokabideengatik zehapen-prozedura ez dadila izapidetu eta, horren ondorioz, Ikerketa Zuzendaritzak egindako ikerketak artxiba daitezela, etsi badu Lehiaren Defentsarako Legea ez dela urratu. Kasua gurera ekarrita, (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak izango luke eskumena, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak proposatuta).
- (14) **Bigarrena.-** Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak proposatu du zehapen-espedientea ez izapidetzeko, honako arrazoi juridikoak oinarri hartuta:
- (15) Alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ustez, boikota da, hain zuzen, pertsona bati edo enpresa bati harreman sozialak edo komertzialak galaraztea, kalte eragiteko asmoz, hartara, eskatzen zaion guztia ematera behartzeko. Hortaz, bi bereizgarri ditu boikotak, batetik, boikota jasaten duenari ezer galaraztea eta, bestetik, kalte egiteko edo zerbaitera behartzeko asmoa izatea. Kasu honetan, elkarte bat denez, boikota Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikuluen barruan kokatuko litzateke, debekatu egiten baitu merkatu nazional osoaren edo zati baten lehia galarazteko, murrizteko edo faltsutzeko talde-erabaki oro, eta batez



ere, honetan oinarritutakoak: b) Produkzioa, banaketa, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatu edo kontrolatzea.

- (16) Nolanahi, espedientean daukagun dokumentazioa zehatz-mehatz aztertu ondoren, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak agerian utzi du ADEBI elkarteak Odontologoek Elkargoari esku har zezala eskatu ziola etsita hortz-plana kaltegarria zela ogibiderako, eta horregatik eskatu zuela plan horren edukia jakitera emateko, besteak beste, Lehiaren Defentsarako Auzitegiari, eta egin ere egin zen, beren ustez zilegi zen asmoa defendatu nahian. Dena dela, instrukzioaren fasean, emandako dokumentuak aztertu ondoren, estatuko Lehiaren Defentsarako Zerbitzu iraungiak azkenik salaketa artxibatu egin zuen, ez zuelako ikusi salatutako egintzek Lehiaren Defentsarako Legea urratzen zutenik.
- (17) ADEBI elkartearen jokabideari buruz, espedientean datozen dokumentazioa ikusita eta egindako ikerketen emaitzak kontuan hartuta, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak uste du jokabidea zilegizko jo behar dela, ADEBI elkarteak bere ustez kaltegarri zen egoera baten berri eman ziolako Odontologoek Elkargoari, ez besterik; Elkargoak organo eskudunei jakinarazi ziezaien Hortz Planak egin omen zituen irregularitateen berri izan zezaten.
- (18) **Hirugarrena.-** Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egiaztatu du ADEBI elkarteak ez zuela ezer egin zuzenean IMQ-rekiko, eta aseguru-etxe hori izango zela, izatekotan, ustezko boikotaren helburu, bera denez kontratuko xedeak odontologoekin negoziatzen duen aseguru-erakundea.
- (19) Bestalde, ez da ziurra ADEBI elkarteak ezer egin zuenik bere bazkideekin, Plana ez zezaten sinatu, are gehiago, ADEBI elkarteak, hauxe erantzun zion Lehiaren Defentsarako Zuzendaritza Nagusi iraungiari, 2004ko abenduaren 30ean bidalitako idazkian: *“ez dakigu zein bazkidek daukaten kontratua sinatuta IMQ-rekin, Elkargoak 2004ko azaroaren 30ean idatzitako datua besterik ez genekien, ADEBI elkarteko 4 bazkidek sinatu zutela kontratua”*.
- (20) **Laugarrena.-** Auzitegiaren iritziz, ADEBI elkarteak egindakoari buruz Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ikertutako ekintzak ez dira Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua kontrakoak, egiaztatuta geratu baita bere helburua ez zela bere aseguratuak IMQ-ren Hortz Plana ez sinatzeko oztopoak jartzea, baizik eta zenbait agintaritza, besteak beste, Lehiaren Defentsarako Auzitegia, IMQ-aren Hortz Planaren jakinaren gainean jartzea.
- (21) Ikerketa osoan ez da inoiz sumatu ADEBI elkarteko kideei IMQ aseguru-konpainiarekin kontratua ez sinatzeko inongo gomendio, behartze edo oztoporik egin zaienik. Bestalde, argi eta garbi ikusten da ADEBI elkarteak Odontologoek Elkargoari gutuna bidali zion garaian, Hortz Plana



zela-eta kezka azaltzeko, ordurako kide batzuek kontratua sinatuta zeukatela IMQ aseguru-etxearekin, eta ez da inongo mehatxu edo errepresaliarik egon horregatik.

- (22) Horregatik guztiagatik, Lehiaren Defentsako Euskal Auzitegiak honako ebazpena eman du:

BAKARRA: Zehapen-espeditatea ez abiaraztea eta ADEBI elkarteak izandako jokabideagatik hasitako ikerketa erreserbatuaren ondoriozko egintzak artxibatzea, ez dagoelako Lehiaren Defentsarako Legea urratu izanaren zantzurik.

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari ebazpen honen berri ematea eta interesatuei jakinaraztea, eta adieraztea ebazpen honek administrazio-bideari amaiera ematen diola, hortaz, aukera daukatela ebazpen honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko Euskadiko Justizia Auzitegiko Auzi Errekurtsoen Aretoan, betiere, jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

Gasteiz, 2009ko maiatzak 20

LEHENDAKARIA
JAVIER BERASATEGI TORICES

LEHENDAKARI-ORDEA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

BOKALA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI